

BEZEROEKIKO HARREMANA

Gure enpresa aurrera ateratzeko beharrezkoa da ahalik eta bezero gehien edukitzea eta haiek mantentzea. Orik hasten garenez, jendeak aplikazioaren berri edukitzeko publizitatean inbertituko dugu. Baita ere ahoz-ahoz zabalduko dugu lagunen eta herrikoen artean gure aplikazioa.

Ez dugu harreman zuzenik edukiko bezeroekin, zerbitzu automatizatua baizik, dena internetez izango delako web orrian. Beraien artean arropa saldu edo erosteko aplikazioan bertan txat bat edukiko dute hitz egiteko. Hori, beraien artean egin beharko dute, gu ez gara hortan sartuko. Bertatik adosteko prezioa, salmentaren tokia... Arazoren bat edukiz gero edo beste pertsona molestatzen ari bada, blokeatzeko aukera ere izango da.

Edozein duda argitzeko edo laguntzeko e-mail kontu bat egongo da eskuragarri, hau da, bezeroen arretarako zerbitzu pertsonalizatua erabiliko dugu. Gainera, aplikazio pertsonalizatu bat izango da, bakoitzaren gustura egina, hasieran bakoitzaren gogokoak diren estiloak aukeratzeko aukera izango dute eta arropa estilo horiek salgai egonez gero, e-mail bidez mezu bat iritsiko zaie automatikoki erosteko aukera edukitzeko.



Bezeroekin komunikatzeko euskara, gaztelera, txinera, ingelesa, frantsesa eta katalana izango dira hizkuntzak. Horrela munduko edozein pertsonarekin komunikatu ahal izango gara. Horretaz aparte, beraien balorazioa edo iritziak uzteko aukera ere edukiko dute.

Lehen aipatu dugun bezala Orik hasten gara eta garrantzitsuena ahalik eta bezero gehien lortzea da hasieran. Horretarako, gure aplikazioa zabaltzea ezinbestekoa izango da.